



## EITBren Kontrola Batzordea

Lehendakari andrea, batzordekide jaun-andreak

Ez dut uste inork zalantzarik izango duenik Eusko Jaurlaritzaren aldakuntzak aldaketak ekarriko dituela irrati eta telebista publikoek gure gizartean gertatzen denari buruzko informazioari eta kontaktuari heltzeko moduan.

Erakunde Publikoa den aldetik, Euskal Irrati Telebistak, EITBk, aro berri bat zabalduko du euskal herritar guztien mesedetan, eta erronka korapilatsu askori erantzun beharko die.

Aro berri honetan, EITBk orain arte lortutakoa indartu beharra du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideen artean erreferentzia nagusi bihurtu. Baina orain arte egin diren akatsak zuzendu ere egin beharko ditu, eta orenen gainetik, ahal diren adostasunik zabalenak bultzatu beharko ditu, egin behar diren aldaketak egingarri izan daitezen.

Irrati-telebista publikoak etorkizuneko erronkei erantzuteko gauza izango direla bermatu behar dugu, aldi berean jokamolde sendoetan oinarritu beharko direla ahaztu gabe. Profesionalek egin eta zuzendutako irrati-telebistak izango dira. Eta Herri honekin, demokraziarekin eta pluraltasunarekin, euskararekin eta bakearekin konpromiso sendoa duten hedabideak izan beharko dute.

Euskal irrati-telebista publikoetan zabaltzen ari den aro berri honetan, beharrezkotzat jotzen diren erreforma guztiak egingo dira, herri honetako instituzioak eta legeak errespetatzen eta defendatzen dituen ildo editorial bat bermatzeko.

Lan egin beharra dago demokraziaren balioen aldeko konpromiso eraginkorrago bat lortzeko. Alde honetatik, EITBren jokamoldeak bat etorri beharko du bere izaerarekin, hau da, **publikoa** izatearekin, eta gizartean duen lidergoarekin, bakearen aldeko eta terrorismoari zilegizkotasun ideologikoaren aurkako pedagogia eraginkor bat bideratuz, horixe baita euskal gizarteak giza-eskubideei dagokienez duen oztopo nagusia. Ezin ulertuzkoa da nola izan daitezkeen beste hedabide batzuk eraginkorragoak eta kontsekuenteagoak eremu honetan, zeren EITBk, herritar guztien zergen bidez ordaintzen den erakunde publikoa izanik, programazioaren etikari dagokionez ere aurrena izan beharra baitaika.

EITBk, beste alde batetik, ahalegin berezia egingo du euskal gizartearen pluraltasuna agerriki aitortzeko, eta pluraltasun hori argi eta garbi ager dadin, bai edukietan, bai edukien trataeran ere. Herritar guztiek, nongoak ere diren, non ere bizi diren eta zein ere den beren ideologia, eskubidea dute beren zergez finantzatzen duten irrati-telebista publikoekin identifikaturik sentitzeko.



Aro berri honetan, balioen defentsa hori gure Herriaren mesedetan jokatu duen zerbitzu publiko baten aldeko apustu profesionalarekin eta euskararen sustapenarekin eta defentsarekin batera uztartuko da. Alde honetatik, EITB1 katea biziberritzeko konpromiso garbia adierazi nahi dugu.

Hitz gutxitan esanda, EITB erakundeak sorreran izan zuen espirtu hura berreskuratzeko behar den guztia egingo duten irrati-telebista publiko batzuen ereduaren alde jokatu nahi du Gobernu honek. Informazioa eta iritzia zehazki eta argi bereizten dakiten irrati-telebistak nahi ditugu. Demokraziako eta elkarbizitzako balioen alde garbi azaltzen diren irrati-telebistak nahi ditugu.

Baten batek pentsa lezake aipatu ditugun printzipio hauetako asko eta asko begi-bistakoak direla, baina gure gizartean oraindik ere, zoritxarrez, bakea eta askatasuna oinarrizko eskakizun dira. Bizitzaren errespetua bera ere kolokan dugu. Zilegi bekit, hortaz, legebiltzarkide jaun-andreok, gaurtik bertatik hastea lehen aipatu dudan pedagogia-lan hori egiten, eta EITBren eredia arautuko duten printzipioak banan-banan aldarrikatzen.

**Profesionaltasuna.** Euskal irrati-telebista publikoak are gehiago indartuko du bere profil profesionala, doktrinatzeko sektario edo ideologikoak oro bazterturik, irrati-telebista libre, ireki, kritikoa, irudimentsu, demokratikoa eta iluntasun orotatik urrunduak lortzeko.

**Euskararen sustapena.** Irrati-telebista publikoak euskararen bultzatzaile izango dira; hizkuntza honek gizartean duen izen onaren alde jokatu dute, eta gure hizkuntzak elkarrekin normaltasunez bizi daitezela nahi duen Euskal Herri plural baten barruan euskara eta euskal kultura sustatu.

**Pluraltasuna.** EITBk oreka bilatu behar du Euskal Herri plural honetako sentiberatasun sozial eta kultural desberdinen artean; herri honek, izan ere, normaltasunez bizi nahi du geroz eta nabarmenago nortasun konplexu, dinamiko eta konpartituetan oinarritzen den eguneroko errealitatea.

**Bakea.** Irrati-telebista publikoek konpromiso eraginkorra izan behar dute bakearekin, eta terrorismoari politikoki, sozialki eta ideologikoki zilegizkotasun oro ukatu. Gizalegezko balioak bultzatu behar dituzte, gazteen artean batez ere, eta argi eta garbi azaldu behar dira ideologia fanatikoen, baztertzailen eta intoleranteen aurka. Ahalegin berezi bat egin behar dute, gainera, biktimen oroitzapena berreskuratu eta gure gizartean haien papera ezagutu dadin.

**Lidergoa.** Euskal irrati-telebista publikoek entzuleriari eta ikusleriari dagokienez lider izateko eta informazioari dagokion guztian erreferentziazkoa izateko ahalegin guztia egingo dute, horrek iritzi publikoaren sortzaile gisa duen eginkizuna indartuko baitu. Baina etikari eta kulturari dagokionez ere aurren ibiltzen ahalegindu beharko du, herritarren mesedetan; EITBk lortu behar du euskal herritar guztiek bertan beren burua islatuta daudela sentitzea.



**Modernotasuna.** Irrati-telebista publikoek sendo, kemenez eta lehiakortasunez erantzun behar diete etorkizunak dakartzan erronka korapilatsuei. Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren artean 2007-2010 arteko eperako sinatutako programa-kontratuan jasota dagoen bezala, lurreko telebista digitalaren emisioak behin betiko finkatzea eta 2010eko apirilerako aurreikusita dagoen emisio analogikoaren desagertzea izango da bitarte horretan gauzatu beharreko alderdi nagusietako bat. Prozesu horretan irrati eta telebistako komunikazio eta transmisio-kanal berriak agertuko dira. Kanal horiek hasiak dira, dagoeneko, komunikazioaren ikuspegi osoa aldatzen, eta EITBk bere ardurapean hartuta duen irrati eta telebistako zerbitzu publikoa betetzeko bideak berriro definitu beharra ekarriko dute.

**Bultzada.** Irrati-telebista publikoek ikus-entzunezkoen alorrean euskal industria indartsu bat garatzen lagundu behar du; helburu horrek estrategikoa izan behar du industriari, ekonomiari eta lanbideei dagokienez.

**Konpromisoa eta elkarrizketa.** Euskal irrati-telebista publikoak gizarte honetako sektorerik ahulenekin konprometituta egongo dira: gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren alde jokatuko dute, bortxakeria matxistaren eta xenofobiaren kontra, haurren eta gazteen defentsan eta etorkinen integrazioan, besteak beste.

Aitortzen dituzten balioak beren baitan ere transmititzeko gai izan behar duten irrati-telebistak izango dira, eta horretarako elkarrizketarako mekanismoak hobetzen ahaleginduko dira, bertako langileak batere onuragarri ez diren eta sobera endogamikoak diren zenbait inertzia gainditzera bultzatuz. EITB-k gardenki jokatu du hala kanpo proiektzioan (estilo-liburua) nola bere profesionalak erlazioan (profesionalaren estatutua).

EITB-k berebiziko ahalegina egingo du euskara eta euskal kultura munduan barrena ezagutzera ematen, eta bost kontinenteetan zehar sakabanatuta dauden euskal herritarrek gure irrati-telebistetan gurekiko lotura lor dezaten. Euskal kultura hedatzeko erantzunkizuna gurea da, eta ez beste inorena, eta alorrari sendo eusteko asmoa dugu.

Laburtzeko, bada -lehendakari andrea, parlamentari jaun-andreok-, EITB Sortzeko 1982ko Legearen espirtua bera errebindikatzen du Gobernu honek; orduko hartan berdintasun-printzipioaren, politika, erlijio, gizarte, kultura eta hizkuntza-pluraltasunaren errespetua, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan guztien interesaren defentsarako aitortzen ziren elkarrekiko bizitzaren gizalegezko balioen defentsa eta sustatzea aipatzen baitziren helburu nagusizat.

Uste oso-osea dugu Legean jasota dauden balio horiek indarrean daudela gaur egun ere, eta horiek direla euskal herritarren eskakizunei eta gure irrati-telebista publikoek dituzten erronkei eman dakiekeen erantzunik hoberena.



Eta sorrerako printzipio horiei zor zaien begiruneak berak eskatzen du legegintzaldi honetan EITB Sortzeko Legearen erreformari heltzea, erreforma adostu bati heltzea. Erreforma honetan sartuko litzateke, besteak beste, barne-mekanismoak, administrazioarekiko dituen erlazio ekonomiko eta mandatukoak, zuzendaritza prozedurak edo prozesu tekniko zein finantzieroak XXI. mendeko logikak eskatzen dituen parametroetara egokitzea. Legebiltzarreko talde guztiak gonbidatzen ditugu eginkizun honetara, Gobernu honek bere eskuan den guztian bultzatu egingo baitu.

Eskerrik asko eta orain EITBko zuzendari nagusi, Alberto Surio jaunari, emango diot hitza bere zuzendaritza lantalde berria aurkeztu dezan.